# LAS PANTALLAS: CANALES POR LOS QUE LA INFORMACIÓN LLEGA A NUESTROS HIJOS E HIJAS

**Las ventajas de la televisión**

- Su nivel de accesibilidad.
- La televisión ofrece una amplia gama de ofertas y esta variedad permite escoger.
- En ella podemos ver en directo acontecimientos a los que no podemos asistir.
- Facilita nuestro acceso al mundo exterior y el conocimiento de otras culturas y formas de vida.
- La televisión puede entretener de forma sana.
- La televisión puede ser educativa: puede ampliar contenidos, aumentar conocimientos o aprender idiomas.
- puede ayudar a generar buenas actitudes en los niños y las niñas, si ven comportamientos positivos.
- La televisión sirve para: potenciar la imaginación, aprender a ser creativo, satisfacer necesidades afectivas, aprender a compartir, fomentar el espíritu deportivo, desarrollar la atención selectiva (visual y auditiva) o aprender a concentrarse.
- Su función psicosocial facilita la interacción comunicativa.

**Los inconvenientes de la televisión**

- La televisión ofrece valores alejados de la realidad y modelos de vida inalcanzables que acaban generando frustración.
- La televisión induce al consumismo y dispara los niveles de exigencia del consumidor.
- Entre sus efectos sobre la salud, fomenta la pasividad y la falta de análisis y puede causar apatía y falta de ilusión.
- Si vemos mucha televisión leeremos menos y se empobrece el lenguaje.
- Puede generar dependencia cerebral debido a la hiperestimulación de la imagen.
- La televisión desplaza actividades de mayor contacto social, actividad física y deporte y juego.
- Cuando la televisión absorbe, se puede llegar a la teleadicción. Con riesgo la soledad y el aislamiento personal

**Las ventajas de las TIC (Tecnología de la información y la comunicación)**

Las TIC engloban las pantallas de los videojuegos, internet y el móvil.

- Las tecnologías de la información y comunicación aproximan a miembros separados.
- Sirven para aprender cosas.
- Pueden ayudar a los niños y niñas como apoyo en la escuela.
- Algunas administraciones ofrecen ya sus servicios a través de ellas. informan sobre matriculación, consultas varias o las convocatorias de reuniones en el centro escolar.

**Los inconvenientes de las TIC**

- Son caras.
- Pueden provocar adicción.
- Pueden provocar problemas sociales; las personas aisladas pueden prestarse a contactos inadecuados.
- Igual que la televisión, las TIC ejercen sobre nosotros una fuerte persuasión: existe el riesgo de creerse cualquier cosa que aparezca en un mensaje.
- Existe un vacío legal ante la delincuencia. La infancia es su principal víctima, pero los adultos también pueden enfrentarse a situaciones desagradables.

**Las ventajas de los videojuegos**

- Los videojuegos no son más perjudiciales que cualquier medio de ficción si se controla su utilización.
- Suponen un entretenimiento divertido que procura placer a corto plazo con el mínimo coste.
- Existe una gran variedad de oferta en el mercado.
- Poseen un potencial instructivo al desarrollar habilidades cognitivo-espaciales
- Permiten el aprendizaje de idiomas y enseñan a trabajar con programas informáticos de forma lúdica:
- El aprendizaje se basa en la superación de lo imprevisto y desarrollan el instinto de superación.
- Bien seleccionados potencian la creatividad, la agilidad mental, la competitividad, habilidad de conocimientos, favorecen la organización espacio-temporal, la coordinación oculo-motora, el desarrollo de destrezas básicas y la memoria o la puesta en práctica de estrategias.
- Los juegos interactivos exigen alto grado de atención estimulando la actividad cerebral. Ayudan a prestar atención y a tener reflejos.
- Algunos permiten mejorar y acrecentar la rapidez de razonamiento

**Los inconvenientes de los videojuegos**

- Su elevado precio, aunque tienden a abaratarse.
- Pueden producir nerviosismo y ansiedad porque tienen un número interminable de pantallas.
- Si pasan demasiado tiempo delante de la pantalla desarrollan problemas de timidez.
- Su abuso fomenta actitudes narcisistas y disminuye la sociabilidad.
- Los video- juegos pueden provocar un cierto retraso en el proceso de socialización e incluso aislamiento.
- La excesiva estimulación de concentración puede llegar a provocar falta de atención hacia el entorno.
- En el caso de los y las menores, quitan tiempo para otras actividades, como estudiar (en un 28% de los casos), estar con la familia (21%) o con los amigos y amigas (15%).

**Las ventajas de Internet**

- Internet es fácil de usar.
- La comunicación resulta más barata que en cualquier otro medio
- Hace mucho más atractiva la presentación de los contenidos.
- Sus posibilidades informativas son muy amplias
- Internet puede contribuir al desarrollo de la cultura.
- Las posibilidades de interacción son enormes: permite intercambiar experiencias con interlocutores de cualquier punto del planeta y gozar de una plataforma para expresarse u opinar.
- Consolida el proyecto de los hogares inteligentes y ayuda a resolver problemas administrativos de la vida cotidiana.
- En el campo de la educación, fomenta el trabajo en colaboración.
- Reduce los obstáculos para la creación y distribución de contenidos, ofrece un acceso inmediato
- Permite el intercambio con compañeros y maestros de otros países y fomenta el estudio de otros idiomas.
- Rentabiliza el proceso educativo.

**Los inconvenientes de Internet**

- La plaga de la publicidad (spam).
- La libertad que ofrece y la posibilidad que ofrece de acceder a contenidos inadecuados, nocivos, inexactos o poco fiables.
- El consumidor queda desprotegido: las compras por la red no siempre son seguras
- La ciber-delincuencia: lo utilizan las redes delictivas. Acceso fraudulento a tarjetas de crédito.
- El ciber-sexo: Internet facilita el contacto con desconocidos y hay redes de pederastia que lo utilizan para realizar sus contactos.
- La brecha digital, que es la distancia que se genera entre los colectivos que tienen libre y fácil acceso a la red y los que no.
- Se trata de una forma de diferenciación social que depende del conocimiento y la formación del usuario.
- Su abuso puede crear riesgo de aislamiento,
- La ciber-adicción o desorden de adicción a Internet.

**Algunas ventajas del teléfono móvil**

- Con el móvil se resuelven asuntos.
- Ahorra tiempo al no tener que desplazarse a llamar.
- Tener móvil aporta seguridad y tranquilidad a quien lo lleva encima
- Otorga capacidad de decisión, al permitir, por ejemplo, dar tu opinión rápidamente.
- Favorece la capacidad de contacto frente al aislamiento y la comunicación.
- En el entorno doméstico ha generado cambios más profundos y considerables en los hábitos de vida.
- En el mundo laboral mejora la capacidad de respuesta a situaciones nuevas y la relación entre cliente y proveedor.
- Aporta dos tipos de servicios añadidos a la posibilidad de hablar a distancia: ofrece noticias, informaciones y servicios, que proporciona avisos y alertas.
- Durante la adolescencia, las familias pueden trabajar él uso móvil, con responsabilidad y autocontrol.

**Algunos inconvenientes del móvil**

- El gasto económico se desborda fácilmente.
- Se habla o se envían sms para remediar el aislamiento social.
- Genera intranquilidad y ansiedad cuando hay que prescindir de él.
- No es recomendable tener teléfono móvil en la infancia.
- Cada vez es mayor el número de casos en los que el teléfono móvil es utilizado para realizar amenazas e injurias contra otras personas.
- La recepción de mensajes no solicitados y de publicidad.

www.herrikoa.net herrikoa@herrikoa.net

# PANTAILAK: GURE SEME-ALABEI INFORMAZIOA HELARAZTEKO BIDEAK

**Telebistaren alde onak**

- Eskuragarritasun maila.
- Eskaintza sorta handia du eta aukera horrek hautatzeko bidea ematen du.
- Joan ezin garen gertakariak zuzenean ikusteko aukera ematen du.
- Kanpoko mundura heldu ahal izatea eta beste kultura eta bizimodu batzuen berri izatea errazten du.
- Modu osasungarrian jostarazi ahal digu telebistak.
- Hezteko balio ahal du telebistak: edukiak barneratzeko, ezagutza handitzeko edo hizkuntzak ikasteko.
- Jokaera onak eta positiboak ikusten badituzte, haurrek jarrera onak ikas ditzaten lagundu ahal du.
- Telebistak honako hauetarako balio du: irudimena bultzatzeko, sortzailea izaten ikasteko, afektibitate premiei erantzuteko, partekatzen ikasteko, kirol espiritua sustatzeko, aukeratze arreta garatzeko (ikustekoa eta entzutekoa) eta gogoa biltzen ikasteko.
- Duen eginkizun psikosozialak komunikazio eragin-trukea errazten du.

**Telebistaren alde txarrak**

- Errealitatetik urrun dauden balioak eta ezin lortuzko bizimodu ereduak eskaintzen dituenez, azkenean frustrazioa sortzen du.
- Kontsumismorantz bultzatzen du eta kontsumitzailearen exijentzia mailak areagotzen ditu.
- Osasunean dituen eraginei dagokienez, pasibotasuna eta analisi eza bultzatzen ditu, eta geldotasuna eta ilusio falta eragin ahal ditu.
- Telebista denbora askoan ikusten badugu, gutxiago irakurtzen dugu eta hizkuntza pobretzen da.
- Buru mendekotasuna sor dezake, irudiak neurrigabe estimulatzen duelako.
- Gizarte harreman, jarduera fisiko, eta kirol eta jolas handiagoko ariketei lekua kentzen die telebistak.
- Telebistak bere egiten zaituenean, telemendekotasuna izatera hel zaitezke. Eta horren arriskua bakardadea eta baztertzea izan daiteke.

**IKTen alde onak (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak)**

IKTek bideo jokoen, Interneten eta sakelako telefonoaren pantailak hartzen dituzte.

- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiek urrun dauden kideak gerturatzen dituzte.
- Gauzak ikasteko balio dute.
- Eskolan ikasitakoaren lagungarri izaten ahal dira neska-mutikoentzat.
- Zenbait administraziok beren zerbitzuak teknologia horien bidez eskaintzen dituzte: matrikulatzeari buruzko informazioa ematen dute, hainbat kontsulta egiteko aukera ematen dute edo ikastetxeko bileretarako deiak egiteko bidea ematen dute.

**IKTen alde txarrak**

- Garestiak dira.
- Mendekotasuna sortu ahal dute.
- Gizarte arazoak eragin ditzakete: bakartuta dauden pertsonek egokiak ez diren harremanak izan ditzakete.
- Telebistak bezala, IKTek gogatzeko ahalmen izugarria dute: mezu batean ageri den edozein gauza sinesteko arriskua dago.
- Gaizkiletasuna dela eta, lege hutsune ikaragarria dago. Nahiz eta haurrak diren biktima nagusiak, baliteke pertsona helduek ere egoera desatseginei aurre egin behar izatea

**Bideo jokoen alde onak**

- Erabilera kontrolatzen bada, bideo jokoak ez dira fikziozko beste edozein bide baino kaltegarriagoak.
- Denbora-pasa dibertigarria da: gozamena epe laburrean ematen dute, eta kostu minimoa dute.
- Merkatuan eskaintza aukera handia dago.
- Ezagutza-espazio trebetasunak garatzeko ahalmen hezigarriak dituzte.
- Hizkuntzak ikasteko bidea ematen dute eta, jolas moduan, informatika programekin lan egiten irakasten dute.
- Ezustekoa gainditzean oinarritzen da ikasketa eta gainditzeko sena garatzen laguntzen dute.
- Ongi aukeratzen badira, sormena, buru bizkortasuna, lehiakortasuna eta ezagutzen gaineko gaitasuna bultzatzen dituzte, eta leku-denborazko antolaketa, ikusmen-motor koordinazioa, oinarrizko trebetasunak garatzea, oroimena eta estrategiak gauzatzea laguntzen dute.
- Eragin-trukeko jokoek arreta maila handia eskatzen dutenez, buruaren jarduera bizkortzen da. Gogoa biltzen eta erreflexu onak izaten laguntzen dute.
- Arrazoitze azkartasuna hobetzen eta handitzen laguntzen dute batzuek.

**Bideo jokoen alde txarrak**

- Garestiak dira, nahiz eta merkatzen ari diren.
- Urduritasuna eta antsietatea eragin dezakete, pantaila kopuru amaigabea dutelako.
- Pantailaren aurrean denbora gehiegi ematen badute, herabetasun arazoak izan ditzakete.
- Gehiegi erabiltzeak jarrera nartzisistak bultzatzen ditu eta gizartekoitasuna gutxitzen du.
- Gizartekoitze prozesuan atzeratzea edo, are gehiago, bakartzea, eragin dezakete bideo jokoek.
- Arreta biltzea gehiegi estimulatzen bada, ingurunerako arretarik ez izatea eragin dezakete.
- Adingabeen kasuan, beste jarduera batzuetarako denbora galarazten diete: ikastea (kasuen %28an), familiarekin egotea (kasuen %21ean) edo lagunekin egotea (kasuen %15ean).

**Interneten alde onak**

- Internet erabiltzen erraza da.
- Komunikazioa beste edozein bidetatik baino merkeagoa da.
- Edukien aurkezpena askoz ere erakargarriagoa egiten du.
- Informaziorako dituen aukerak izugarriak dira.
- Kultura garatzen lagundu dezake Internetek.
- Eragin-trukerako aukerak itzelak dira: planetako edozein puntutan dagoen solaskidearekin esperientziak trukatzeko aukera ematen du eta bai adierazteko edo iritzia emateko plataforma bat izatekoa ere.
- Etxebizitza adimendunen proiektua sendotzen du eta eguneroko bizimoduko administrazio arazoak konpontzen laguntzen du.
- Hezkuntzaren alorrean, lankidetzan egindako lana sustatzen du.
- Edukiak sortzeko eta banatzeko oztopoak gutxitzen ditu, eta berehala sartzeko aukera eskaintzen du.
- Beste herrialde batzuetako lankideekin eta irakasleekin trukea ahalbidetu eta beste hizkuntza batzuk ikastea bultzatzen du.
- Heziketa prozesua errentagarri bihurtzen du.

**Interneten alde txarrak**

- Publizitate izurria (spamak).
- Eskaintzen duen askatasuna eta desegokiak, kaltegarriak, okerrak edo ez oso fidagarri diren edukietara heltzeko aukera.
- Kontsumitzailea babesik gabe gelditzen da: sarean egiten diren erosketak ez dira ziurrak beti.
- Ziber-gaizkiletasuna: gaizkile sareek baliatzen dute. Kreditu txarteletara iruzur eginda heltzen dira.
- Ziber-sexua: ezezagunekin harremanak izatea errazten du Internetek, eta pederastia sareek beren artean harremanetan jartzeko erabiltzen dute.
- Zulo digitala: sarean modu errazean eta askean sar daitezkeen taldeen eta sarean sar ezin daitezkeen taldeen artean sortzen den aldea da.
- Gizarte desberdintasun modu bat da, erabiltzailearen ezagutza eta prestakuntzaren mende dagoena.
- Gehiegi erabiltzen bada, bakartzea eragin ahal du.
- Ziber-mendekotasuna edo Interneterako mendekotasunak sortzen duen nahasmena.

**Sakelako telefonoaren zenbait alde on**

- Sakelako telefonoaren bidez arazoak konpontzen dira.
- Denbora aurreztu ahal da, ez baita mugitu behar deitzeko.
- Sakelako telefonoa izateak segurtasuna eta lasaitasuna ematen dio daramanari.
- Erabakitzeko gaitasuna ematen du, esate baterako, iritzia azkar emateko bidea ematen baitu.
- Harremanak izateko gaitasuna bultzatzen du, bakartzea eta inkomunikazioa alde batera utzita.
- Etxearen esparruan, eguneroko bizimoduko ohituretan aldaketa sakonak eta nabarmenak eragin ditu.
- Lanaren alorrean, egoera berriei erantzuteko gaitasuna eta bezeroaren eta hornitzailearen arteko harremana hobetzen ditu.
- Urrunekoekin hitz egiteko aukerari bi zerbitzu gehigarri ekartzen dizkio: albisteak, informazioak eta zerbitzuak eskaintzen ditu, abisuak eta alertak eskaintzen ditu.
- Nerabeen gaia dela eta, sakelako telefonoaren gaia landu ahal dute familiek, erantzukizunez jokatzea eta nork bere burua kontrolatzea bultzatzeko.

**Sakelako telefonoaren zenbait alde txar**

- Diru gastua erraz handitzen ahal da.
- Gizarte bazterketari aurre egiteko bidaltzen dira mezuak edo hitz egiten da.
- Urduritasuna eta antsietatea sortzen ditu ez badago eskura.
- Ez da gomendagarria haurtzaroan sakelako telefonoa izatea.
- Geroz eta gehiago dira sakelako telefonoa beste pertsona batzuk mehatxatzeko eta iraintzeko erabiltzen dutenak.
- Eskatu ez diren mezuak eta publizitatea jasotzea.

www.herrikoa.net herrikoa@herrikoa.net